

Adineko gizona

Lehenengo astean gonbidatu ninduen Bilboko Udalak jubilatzen diren “maisu-maistrei” urtero egiten dien omenaldira. Komatxoaren artean idatzi dut *maisu-maistra*, alkate jaunak bere mintzaldian behin eta berriro erabili zuen terminoa, hain zuzen. Ni ez naiz maisu izan, ordean, nahiz eta esan litekeen zenbait urtez maisuarena egin nuela. Lizentziatua nauzue, eta irakasle aritu naiz ia bizitza osoan, adin guztietako ikasleak izan ditudalarik euskaltegian, unibertsitatean, eskolan, institutuan eta, azken hogeitaka urtetan, Iralen.

Lehen eta Bigarren Hezkuntzakoak izan ginen omenduak; denok irakasle, beraz. Hori zen alkateak erabili beharreko terminoa, irakasle. Haatik, badirudi *maisu* edo *maistra* erabiltzeak ahalbidetzen duela xamurkiago, ezti-kiago hitz egitea, umeak irudikatzen baititugu. Edozelan ere, egia borobila esan zuen alkate jaunak: zailagoa da heztea irakastea baino. Irakasleok, maisu-maistrak barne, irakatsi behar dugu; baina baita hezi ere, batez ere ume-gaztetxoekin arituz gero. Heziketa gurasoekin eta, oro har, gizartearekin elkar banaturiko lana da, halere. Hori nerabilen buruan, alkateari entzun ahala. Pentsatu nuen ni haurra nintzenekoaren kontrara, oraingo gurasoek



Imanol Alvarez
IRAKASLE OHIA

Aitak hil aurreko azken urteetan maiz esaten zidan: “Seme, ez dakit zer egiten dudana, baina ez daukat ezertarako astirik”. Nik barre egiten nion; baina orain ulertzen dut ederto baino hobeto, neuri ere gauza bera gertatzen zait-eta

autoritate guztia kendu ohi dietela irakasleei, elkarlana izan behar zena ia elkarren kontrako lehia bihurtuz. Eta, horren ondorioz, besteak beste, egun ume-gaztetxoekin aritzea orduan baino

askoz zailagoa izan behar zaiela irakasle-maisu-maistrei, eta ongi merezia dutela/dugula omenaldi xumea.

Hainbat medio egon ziren ekitaldiaren berri eman gura. Hiru ziren zehazki: irrati, egunkari eta telebista bana; eta hirurek bertan geunden ia ehun lagunetatik ni aukeratu ninduten jubilatutaz esperientziak berba egiteko. Bitxia! Irratian zuzenean nengoela hizketan, etorri zitzaidan burura aitak hil aurreko azken urteetan maiz esaten zidana: “Seme, ez dakit zer egiten dudana, baina ez daukat ezertarako astirik”. Nik barre egiten nion; baina orain ulertzen dut ederto baino hobeto, neuri ere gauza bera gertatzen zait-eta.

Egin ez dut ezer berezirik egiten, baina denbora oso okupatua izaten dut: paseatu, kafea hartu, egunkariei begiratu, erosketak, etxeko kontuak, ordenagailuan aritu (hori ezin falta!)... eta, jakina, antzerkita, zinera eta abarretara joan. Esandakoa, ez dut ezertarako astirik. Hori bai, dena egiten dut batere estresik gabe, eta horrek ez du preziorik. Lehenengo egunean irakurri nuen Elvira Lindoren artikulu polit bat, “adineko andreak dira kafetegia, zinema-aretoak, antzokiak eta kultur ekitaldi oro betetzen dituztenak” zioen. Ni adineko andre ez, baina adineko gizona banaiz. Alajaina! ■

DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzeko
lagunduko dizugu

SIGACUS

© 943 453 588 - www.sigacus.com

LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
perifazioak
balorazioak
etxebizitzako proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Argi Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 941 13 26 97
lue@luark.com

MARCOS
okindegia

**Banetako
aitzina-aitzina opia**

© 943 450 966
Urbetara puzteak, 119
Artizaga (Gizakoa)